

BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2014

ERABAKIA, 2024ko martxoaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, zeinaren bidez Presidenteari baimena ematen zaion Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta Onkologikoa Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko.

Onkologikoa Fundazioa 2010eko apirilaren 16an eratu zuen «Fundación Social y Cultural Kutxa» fundazioak (gaur egun, Kutxa Fundazioa), eta, eratu zenetik, herritarren bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea du helburu, jatorri onkologikoa duten gaixotasunen prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan espezializatutako kalitatezko osasun-zerbitzua emanaz.

1952tik aurrera, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala arduratu zen, eskusibotasunez, garai bateko Institutu Onkologikoa kudeatzeaz eta finantzatzeaz, eta bere gizarte-ekintza propioaren elementu garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. 2009ko urtarrilaren 16an, Miramongo ospitale-gunean dagoen eraikin berria inauguratu zen (gaur egun, Begiristain doktoarearen pasealekua 121) eta, formalki, 2010eko apirilaren 16an eratu zen Onkologikoa Fundazioa. Erakunde fundatzaileak berak (Kutxa Fundazioa) higieztina jarri zuen –gaur egun Fundazioak bertan du jardueraren helbidea eta egoitza–, bai eta pazienteak artatzeko beharrezko instalazioak ere.

Onkologikoaren eta Administrazio Publikoaren arteko harremanen bilakaerari dagokionez –hitzarmenaren azalpen-zatiaren bigarren atalean garatzen den bezala–, Eusko Jaurlaritzak osasun-alorreko eskumenak bere gain hartu ondoren, 1988an Euskal Osasun Zerbitzuak bere gain hartu zuen Institutu Onkologikoarekin sinatutako ituna, eta, ondoren, itun berriak sinatu ziren Osasun Sailarekin.

Era berean, Onkologikoa Fundazioa formalki eratu ondoren, fundazioa itun horietako batean subrogatu zen, zehazki, 2009ko apirilaren 23an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin sinatutako «Euskadiko osasun-sistemako pazienteei onkologia-zerbitzuak emateko ituna» izenekoan (Concierto de prestación de servicios de oncología para pacientes del sistema sanitario de Euskadi).

Ordutik aurrera, itun guztiak Onkologikoa Fundazioaren eta Osasun Sailaren artean sinatu ziren. Itun horien guztien xedea zen Euskadiko osasun-sistemako pazienteentzako onkologia-zerbitzuen kontratazioa arautzea, Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak onartutako deribazio-irizpideetan eta tarifetan oinarrituta. Itunean, bularreko minbizia eta kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programak ere sartu ziren.

Urte batzuk geroago, Onkologikoa Fundazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sailaren arteko elkarrizketak hasi ziren, bi erakundearen arteko harreman-eredua alda zedin ahalbidetzeko, eta, horrekin batera, osasun-sistema publikoko pazienteei arreta onkologikoa ematen zieten zentro sanitarioen arteko lehia saihesteko eta fundazioaren funtzionamendu integratuagoa ahalbidetzeko. Horrela, Fundazioak administrazio publikoarekin duen jarduera osatzeko bokazioa bete zen, eta ulertu zen ezen, osasun-zerbitzu publikoak onkologiaren tratamendua bere gain hartu ondoren, Fundazioaren zeregina jarduketa publikoari laguntzea, indartzea eta, hala badagokio, osatzea zela.

Minbizia artatzeko jarduketa publikoa 2013-2020 Osasun Planean islatzen da. Plan horretan, lehenetsuneko jarduera-ildoetako bat minbizia duten pertsonen arreta ematea da, eta helburu

zehatz hau planteatzen da: minbizia dutenei arreta emateko eredu bat sustatzea, arreta integral, integratu, pertsonalizatu eta koordinatura bideratutako diziplina anitzeko taldeen bidez.

Osasun Plana inspiratzen duten printzipioekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2018-2023 aldirako Euskadiko Plan Onkologikoa egin zuen, paziente onkologikoen eta haien senideen arretan inplikaturako aditu eta profesional sanitarioen taldeen aholkularitzarekin. Plan horrek eredu asistentzial bat planteatzen du, ezaugarri hauek dituena: diziplina anitzeko ikuspegi; pazienteen behar orokorreari erantzungo dien tratu humanizatua; diagnostiko-denbora murriztu ahal izatea, eta esku-hartze eta interbentzio konplexuenak erreferentziazko unitateetan kontzentratu ahal izatea, behar den esperientzia bildu ahal izateko.

Testuinguru horretan, eta Euskadiko Plan Onkologikoarekin bat etorritik, araudi bat garatzen da, Osasun Sailaren eta Onkologikoa Fundazioaren arteko harreman-eredua egokitzeko, loturaren figuraren bitartez. Ildo horretan, irailaren 4ko 127/2018 Dekretuaren babesean (titulartasun pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko zentro sanitarioekin zerbitzu sanitarioak emateko lotura-hitzarmen espezifikoa sinatzeko betekizunei eta prozedurari buruzkoa), 2018ko abenduaren 27an lotura-hitzarmena sinatu zen Osasun Sailaren eta Onkologikoa Fundazioaren artean, zerbitzu sanitarioak emateko. Lotura-hitzarmen horren helburua zen Fundazioaren Onkologikoa zentro sanitarioa modu integratuan funtziona zezan Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioekin. Hala, jarduera hori organo gidari baten zuzendaritzapean eta kudeaketapean geratu zen, organo goren gisa, eta zentro sanitarioak zuzendari bat zuen. Horrela, Euskadiko herritar guztiei arreta onkologiko integrala emateko, Plan Onkologikoaren helburuekin bat etorritik eta Fundazioaren helburuak zorrotz errespetatuz, lotura-hitzarmenaren formulak bi ospitale-egituraren funtzionamendu integratua errazten zuen, ikuspegi operatibo eta funtzional batetik, betiere Fundazioaren instalazioen eta lan-harremanen titulartasuna errespetatuz.

Lotura-hitzarmen horrek, 2022ko abenduaren 20an alderdien arteko akordio bat sinatu ondoren, indarrean jarraituko du, hasiera batean, 2024ko martxoaren 31ra arte. Horrenbestez, harreman-esparru berri bat baloratu ahalko da –hala badagokio, zentroa titulartasun publikoko baliabide gisa integratzea–, zeinak indarrean jarraituko baitu integrazioa benetan gauzatu arte.

Azken urteotan bi erakundeen artean ezarritako loturari buruz egiten den balorazioa positiboa izan arren, zailtasunak daude lotura-eredu horri eusteko eta, etorkizunean, Fundazioak ezingo du bere helburua betetzen jarraitu. Inguruabar horiek ekarri dute Fundazioa azkendu behar izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Egoera horretatik abiatuta, eta Onkologikoa Fundazioa azkendu eta likidatuko denez ezinbestean, hitzarmeneko alderdiek komenigarritzat jo dute Onkologikoa zentro sanitarioa Euskadiko Osasun Sistemari integratzeko behin betiko prozesua antolatzea.

Horretarako, beharrezkoa da dagokion lege-babesa izatea, kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontuak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen hamalaugarren xedapen gehigarriaren bidez. Lege horretan xedatzen da Onkologikoa zentro sanitarioa Euskadiko Osasun Sistemari integratzea. Ondorioz, hitzarmen honen bidez, lege-aurreikuspen hori garatu eta aplikatuko da, Onkologikoa Fundazioa azkendu ondoren.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55.4 artikulua arabera, hitzarmen hau pertsonifikazio-modu pribatuan eratutako erakunde batekin sinatzen denez, Onkologikoa Fundazioak, printzipioz, Gobernu Kontseilura bidaltzea baino ez luke eskatuko, jakinaren gainean egon dadin. Hala ere, aipatutako artikulua puntu berean adierazten den bezala, «Eusko Jaurlaritzak aurretik eman beharko du baimena organo honen eskumenezuzenekoak diren gaitetan, hala

2024ko apirilaren 26a, ostirala

nola gastuetarako baimenak, konpromiso-kredituak, ondare-eragiketak, (...) hitzarmen horien edukiaren ondoriozkoak». Hori guztia irailaren 4ko 127/2018 Dekretuaren 11. artikularekin lotuta dago. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu sanitarioak emateko titulartasun pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko zentro sanitarioekin lotura-hitzarmen espezifikoak sinatzeko betekizunak eta prozedura arautzen dira. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da Gobernu Kontseiluaren alde aurreko baimena lortzea.

Baimen horrekin batera, halaber, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8. artikulua ematen dizkion eskumenez baliatuz, bidezkoa da hitzarmen hau onartzea, Ente Publikoari atxikitako baliabideak berrantolatzeko neurriak jasotzen baititu, zerbitzu sanitarioetako erakundeen etorkizuneko konfigurazioari dagokionez.

Aurrekoaren ondorioz, eta dagokion eztabaida egin ondoren, 2024ko martxoaren 25eko bilkuran, Administrazio Kontseiluak honako erabaki hau hartzen du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Presidenteari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta Onkologikoa Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzeko.

Bigarrena.– Hitzarmen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, herritarren eskubide eta betebeharrei eragiten diela iritzita, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 65.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 33.6 artikuluan xedatutakoaren arabera argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 25a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentea,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.